



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

✉ Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz  
945 019 300  
Fax: 945 019 280  
e-mail: [ordes2sc-san@ej-gv.es](mailto:ordes2sc-san@ej-gv.es)  
Web: <http://tinyurl.com/coqss6l>

#### Idazketa eta argitalpena

#### Redacción y Edición:

Aldasoro, Elena  
Bacigalupe, Amaia  
Calvo, Montse  
De Diego, Maite  
Elorriaga, Estibaliz  
Esnaola, Santiago  
Esparza, Puy  
Martín, Jose Antonio  
Pardillo, Belén

· Iradokizunen bat egin edo informazio-oharrak jasotzeki utzi nahi badiozu, bidali mezu bat helbide honetara: [ordes2sc-san@ej-gv.es](mailto:ordes2sc-san@ej-gv.es)

· Si desea hacer alguna sugerencia o no desea recibir más información como la presente, háganoslo saber enviando un mensaje a: [ordes2sc-san@ej-gv.es](mailto:ordes2sc-san@ej-gv.es)

· Buletin hau jaso nahi duen norbait ezagutzen baduzu, helarazi iezaguzu, mesedez, bere helbide elektronikoa, eta atsegin handiz bidaliko diogu kopia bat.

· Si conoce a alguien con interés en recibir este Boletín, por favor, háganoslo llegar su dirección de Correo Electrónico y, muy gustosamente, le haremos llegar una copia.

➔ Egin zaitez buletinaren harpidedun  
➔ [Suscribete al boletín](#)

#### HARREMANETARAKO/CONTACTO:

Esparza Liberal, M<sup>a</sup> Puy

Azterlan eta Ikerkuntza Sanitarioko  
Zerbitzua. Plangintza, Antolamendu eta  
Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza.  
Osasun Saila.  
[ordes2sc-san@ej-gv.es](mailto:ordes2sc-san@ej-gv.es)

Servicio de Estudios e  
Investigación Sanitaria. Dirección de  
Planificación, Ordenación y Evaluación  
Sanitaria. Departamento de Salud.  
[ordes2sc-san@ej-gv.es](mailto:ordes2sc-san@ej-gv.es)

☎ 945 01 93 00  
fax: 945 01 92 80



PASAIKO BADIA BAHÍA DE PASAIA

1. Irudia. Esku-hartzeko eremuen espazio-kokapena  
Figura 1. Localización espacial de las áreas de intervención

## PASAIKO BADIA (GIPUZKOA) BERRONERATZEKO BI ESKU-HARTZEK OSASUNEAN DUTEN ERAGINAREN EBALUAZIOA (OEE)

➔ Eskura dugun ezagutzak erakusten duenez, pertsonen egoera sozioekonomikoak beraien osasunean eragina du, baita testuinguruko beste faktore batzuek ere, hala nola, hiriaren diseinuak eta kalitateak eta oinarriko baliabideak eta zerbitzuak edukitzeak. Hiria berroneratzeko proiektuek, beraz, zeregin erabakigarria izan dezakete osasunean.

2011n, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Pasaiako badiaren bi berroneratze esku-hartzek, Osasunean duten Eraginaren Ebaluazioa (OEE) aplikatzea sustatu zuen. Aipatutako bi esku-hartzeak hauek dira: arrain-lonja berria eta La Herrera Iparraldea/Mendebaldeko (I/M) berrantolaketa (1. irudia). Pasaiako badiaren historia eta egungo osaketa, portuari biziki lotuta daude. 80ko hamarkadatik aurrera, portuko jardueraren gainbehera progresiboa, nariadura sozioekonomikoan eta hiri-ingurunean islatu da.


Lan honek OEE metodologiaren etapa klasikoak garatu zituen: baheketa, diseinua eta .../...

## EVALUACIÓN DEL IMPACTO EN SALUD (EIS) DE DOS INTERVENCIONES DE REGENERACIÓN EN LA BAHÍA DE PASAIA (GIPUZKOA)

➔ El conocimiento disponible muestra que la salud de las personas depende de sus condiciones socioeconómicas, así como de otros factores contextuales como el diseño y la calidad urbana, y el acceso a recursos y servicios básicos. Los proyectos de regeneración urbana, por tanto, pueden ejercer un papel determinante en la salud de la población.

En 2011, el Departamento de Salud del Gobierno Vasco promovió la aplicación de una evaluación del impacto en salud (EIS) de dos proyectos incluidos en la regeneración de la bahía de Pasaia: la nueva lonja de pescado y la reordenación de La Herrera Norte/Oeste N/O (figura 1). La historia y la conformación actual de la bahía de Pasaia están profundamente ligadas al puerto. A partir de los años 80, el progresivo declive de la actividad portuaria ha tenido reflejo en el deterioro socioeconómico y del medio urbano.

Este trabajo desarrolla las etapas clásicas de la metodología EIS: cribado, diseño y .../...



2. Irudia. Arrain-lonja berriko eraginen diagrama

Figura 2. Diagrama de impactos de la nueva lonja de pescado

.../... planifikazioa, ebaluazioa bera, eta eraginei eta gomendioei buruzko txostena idaztea. Ebaluazio fasean, esku-hartzeak aztertu, komunitatea ezaugarritu, informazioa bildu eta eraginak aztertu eta lehenetsi ziren. Ezaugarritzea egiteko, adierazle soziodemografikoak eta populazioaren osasun-egoera aztertu ziren; halaber, ingurumenaren eta hiriaren kalitatea ere. Informazioa biltzeko, azterketa bibliografikoa egin zen eta azterlan misto batekin osatu zen: zati bat, kualitatiboa, eta, ondoren, bestea, kuantitatiboa.

Aurreko etapetan lortutako emaitzak sintetizatu eta eraginen diagramak erakutsi ziren. Horiei esker, agerian geratu ziren esku-hartze bakoitzaren fluxuak eta horien ondorioak osasunean. Arrain-lonja berriaren esku-hartzeak hiri-ingurune ko kalitatea hobetuko du, eta modu positiboan eragingo du osasun fisikoan eta mentalean, nahiz eta lonjaren kokalekua hirigunean egoteak arriskuak sor ditzakeen (2. irudia). La Herrera I/Mko berrantolamenduari lotutako eragin negatiboak lursail horren narriadurarekin eta esku-hartze ezarekin du zerikusia.

Identifikatu ziren eraginetan oinarrituta, osasunean ahalik eta errendimendu gehien lortzeko, gomendioak proposatu ziren: batzuk, gomendio orokorrak badiaren berroneratze prozesurako eta beste batzuk, bereziak aztertutako bi esku-hartze hauetarako. Horiez gain, baditu esku-hartzei loturiko aukera berrietarako gomendioak eta sortzen diren atsedeneku berrietarako ere. Beste gomendio batzuek jardun-ildo hauek jorratzen dituzte: Udalaren, Portuko Agintaritzaren eta gainerako solaskideen arteko adostasunak erdiestea eta komunikazio-bideak sendotzea, badiaren berroneratzea bultzatzeko eta berroneratze-prozesuari buruzko informazioa emateko aukerak bermatzeko.

.../... planificación, evaluación propiamente dicha y redacción de informe sobre impactos y recomendaciones. En la evaluación se procedió al análisis de las intervenciones, la caracterización de la comunidad, la recopilación de información, y el análisis y priorización de los impactos. La caracterización incluyó el estudio de los indicadores socioeconómicos y del estado de salud de la población, así como de calidad medioambiental y urbana. Para la recopilación de información se procedió a una revisión bibliográfica que se completó con un estudio mixto: una parte cualitativa y una posterior cuantitativa.

Los resultados obtenidos en las fases anteriores se sintetizan y se representan en un diagrama de impactos, que permite visualizar los flujos existentes en cada intervención y sus efectos en la salud. La intervención de la nueva lonja de pescado mejorará la calidad del entorno urbano, y contribuirá positivamente en la salud física y mental, a pesar de los riesgos asociados a su ubicación en el casco urbano (figura 2). Los impactos negativos asociados a la reordenación de La Herrera N/O están relacionados con el mantenimiento del deterioro de la parcela y la falta de abordaje de la intervención.

En base a los impactos identificados, con objeto de obtener el máximo beneficio en salud, se propusieron recomendaciones generales para la regeneración de la bahía y específicas para las dos intervenciones evaluadas. Además, se añaden recomendaciones para las nuevas oportunidades ligadas a las intervenciones y para los nuevos espacios que se creen. Otras recomendaciones van en la línea de alcanzar acuerdos y cauces de comunicación entre Ayuntamiento, Autoridad Portuaria y otros interlocutores para impulsar la regeneración de la bahía y garantizar las oportunidades de información respecto a los proyectos.

## **DESBERDINTASUN SOZIALAK EZINTASUNIK GABEKO BIZI-ITXAROPENEAN (EGBI) DITUEN ERAGINAK: EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO (EAE) KASUA.**

Azterketa honen helburua da ezintasunik gabeko bizi-itxaropenean (EGBI) desberdintasun sozioekonomikoak aztertzea XXI. mendeko lehenengo hamarkadan EAEn. Ateratako ondorioak antzeko beste ikerketa batzuekin koherenteak dira eta adierazten dute gabezia-maila handiagoa den heinean bizi-itxaropena murriztu egiten dela bai EGBIn, bai bizi itxaropen osoan. Era berean, badirudi, Europa hegoaldean EGBIn desberdintasunak urriagoak direla kontinenteko gainerako herrialdeetan baino. Azterketa honek osasunean desberdintasun sozialak monitorizatzen jarraitzeko beharra dagoela azpimarratzen du.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/1C3xRKv>

## **OSASUN SISTEMA NAZIONALA: DIAGNOSTIKOA ETA AURRERA EGITEKO PROPOSAMENAK**

Osasunaren Ekonomia Elkarteak dokumentu bat egin du. Dokumentu horretan, batetik, krisiaren ondorioz egin diren eta babes sozialaren sistema murriztu duten legegintza-ekimen berriek ekarritako aldaketak baloratu dira. Bestetik, osasunaren ekonomiaren azterketan funtsezko erreforma-ekimenak proposatu dira; ekimen horien bidez, Osasunaren Sistema Nazionala efikaza, bidezkoa, kaudimenduna eta etorkizuneko krisietan hain ahula izango ez denak epe luzean iraun dezan. Txosten honek biltzen ditu proposamenak, besteak beste, osasuneko politika publikoak zabaltzen eta hobetzen dituzte eta lehen mailako arretaren eta espezializatuaren arteko lotura-estrategiak, indartzen.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/11Ykaj3>

## **PRIBATIZAZIOA AREAGOTU DA KATALUNIAKO OSASUN SISTEMAN**

Pompeu Fabra Unibertsitateko osasuneko desberdintasunei buruzko ikerketa-taldeak (GREDS-EMCONET) gidatutako «Cómo comercian con tu salud. Privatización y mercantilización de la sanidad en Catalunya» liburua gaur egun Katalunian dauden osasun publikoko pribatizazio- eta merkaturatze-estrategiak deskribatzen ditu. Liburu honek egiten duen ekarpen interesgarrietako bat da Kataluniako sistema sanitarioaren pribatizazio eta merkaturatze progresibo hau hainbat hamarkadetan erakitzen joan dela, gaur egungo krisi-egoeran, sendotzeko eta garatzeko aukera ezin hobe izan badu ere.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/1yrUdq2>

## **MINBIZIAK ERAGINDAKO HERIOTZA-TASAREN UDAL-BANAKETAREN EREDUAK ESPAINIAN**

Minbiziak eragindako heriotza-tasa prozesu dinamikoa bat da, denboran eta espazioan alda daitekeena. Azterketa hau Espainiako azken 20 urteetako (1989-2008) minbizi ohikoaren heriotza-tasaren eredu geografikoetako joerei buruzkoa da. Gune bixien metodologia erabilia, lau bosturtekoetako heriotza-tasa estimatu da. Emakumezkoen dagokienez, bularreko, kolon eta ondosteko eta maskuriko minbizien eredu geografiko baten balizko agerpenaren zantzuak antzeman ziren; gizonzkoen dagokienez aldi, eredu egonkor mantendu zen urdaileko, kolon eta ondosteko, biriketako eta maskuriko minbizietan.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/1vtXYXO>

## **HELSINKIKO DEKLARAZIOA: OSASUNA POLITIKA GUZTIETAN (OPG) MAILA NAZIONALEAN ETA AZPINAZIONALEAN APLIKATZEKO ESPARRUA**

Osasun-sustapenari buruz, 2013ko ekainean, Helsinkin egin zen 8. konferentzian, sektoreen arteko ekintza eta politika publiko osasungarriak elementu nagusi gisa identifikatu ziren osasun-sustapenerako, osasunean berdintasuna lortzeko eta osasuna giza eskubide gisa aitortzeko. OMEk gakoak diren sei osagai proposatzen ditu dokumentu hau argitaratu du, OPG ikuspegia abian jartzeko. Dokumentuaren helburua da herrialdeak erabakiak hartzeko prozesuan OPG aplikatzen laguntzea, eta maila nazionalean zein azpinazionalean implementatzea.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/1zoqkpC>

## **LOS EFECTOS DE LAS DESIGUALDADES SOCIALES EN LA ESPERANZA DE VIDA LIBRE DE DISCAPACIDAD (EVLVD): EL CASO DEL PAÍS VASCO.**

Este estudio tiene por finalidad analizar las desigualdades socioeconómicas en la esperanza de vida libre de discapacidad (EVLVD) durante la primera década del siglo XXI en el País Vasco. Las conclusiones que se derivan son coherentes con otras investigaciones similares realizadas y apuntan a que a mayor nivel de privación, menor es la esperanza de vida, tanto libre de discapacidad como total. Así mismo, las desigualdades en la EVLD parecen ser menores en el sur de Europa que en el resto del continente. Este análisis no hace sino subrayar la necesidad de continuar monitorizando las desigualdades sociales en salud.

**Más información:** <http://bit.ly/1C3xRKv>

## **SISTEMA NACIONAL DE SALUD: DIAGNÓSTICO Y PROPUESTAS DE AVANCE**

La Asociación de Economía de la Salud (AES) ha elaborado un documento que, por un lado, valora los cambios introducidos por iniciativas legislativas recientes, debidas a la crisis, que han mermado el sistema de protección social. Por otro, propone medidas de reforma fundamentales en los análisis de la economía de la salud que permitan mantener a largo plazo un Sistema Nacional de Salud eficaz, equitativo, solvente y menos vulnerable ante futuras crisis. Las propuestas que recoge este informe van desde la ampliación y mejora de políticas públicas de salud a la potenciación de estrategias de enlace entre Atención Primaria y Especializada.

**Más información:** <http://bit.ly/11Ykaj3>

## **EL AVANCE DE LA PRIVATIZACIÓN EN EL SISTEMA SANITARIO CATALÁN**

El libro «Cómo comercian con tu salud. Privatización y mercantilización de la sanidad en Catalunya», dirigido por el Grupo de Investigación sobre desigualdades en salud (GREDS-EMCONET) de la Universidad Pompeu Fabra, describe las estrategias de privatización y mercantilización de la sanidad pública que actualmente se están dando en Catalunya. Una de sus aportaciones interesantes consiste en mostrar cómo esta progresiva privatización y mercantilización del sistema sanitario catalán ha ido construyéndose a lo largo de décadas, si bien ha encontrado en la crisis actual un escenario ideal para su consolidación y desarrollo.

**Más información:** <http://bit.ly/1yrUdq2>

## **PATRONES DE DISTRIBUCIÓN MUNICIPAL DE MORTALIDAD POR CÁNCER EN ESPAÑA**

La mortalidad por cáncer es un proceso dinámico, variable en el tiempo y el espacio. Este estudio trata sobre las tendencias en los patrones geográficos de mortalidad de los cánceres más frecuentes en España durante 20 años (1989-2008). Con metodología de áreas pequeñas se estimó la mortalidad en los cuatro quinquenios. En las mujeres, se apreciaron signos de la posible aparición de un patrón geográfico en los cánceres de mama, colorrectal y vejiga; sin embargo en los hombres el patrón se mantuvo estable para el cáncer de estómago, colorrectal, pulmón y vejiga.

**Más información:** <http://bit.ly/1vtXYXO>

## **DECLARACIÓN DE HELSINKI SOBRE SALUD EN TODAS LAS POLÍTICAS (SETP): MARCO PARA SU APLICACIÓN A NIVEL NACIONAL Y SUBNACIONAL**

En la 8ª conferencia de Promoción de la Salud, celebrada en Helsinki en junio de 2013, la acción intersectorial y las políticas públicas saludables se identificaron como elementos centrales para la promoción de la salud, el logro de la equidad en salud y el reconocimiento de la salud como un derecho humano. Con el fin de ayudar a los países a aplicar la SETP en el proceso de toma de decisiones y a su implementación a nivel nacional y subnacional, la OMS ha publicado este documento que propone seis componentes clave para poner la perspectiva de SETP en acción.

**Más información:** <http://bit.ly/1zoqkpC>

**GENERO-DESBERDINTASUNAK ETA ZIENTZIA:  
AZTERKETA BIBLIOMETRIKOA**

**Nature** aldizkariak, ikerketaren munduko ekoizpenean genero-desberdintasuna dagoela baieztatzen den lan hau aurkeztu zuen, nahiz eta asmo onak egon eta ekimenak martxan jarri diren arren. Desberdintasuna ez da soilik kontratazioan, diru-sarreretan, gogobetetzean eta patenteetan antzeman; baizik katedratiko izatera iristen diren emakumezkoen kopurua ere, baxu samarra da. Gainera, gizonezkoek emakumezkoek baino lan gehiago argitaratzen dituzte batez beste, bereziki, ekonomikoki kostu handiagoa duten ikerketa-alorretan.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/18mvXdg>

**PASAIKO BADIA (GIPUZKOA) BERRONERATZEAK  
OSASUNEAN DUEN ERAGINAREN EBALUAZIOA (OEE):  
AZTERKETA KUALITATIBOAREN EMAITZAK**

Artikulu honek Pasaiako badia berroneratzeko bi esku hartzek bizitza-kalitatean eta osasunean duten eraginari buruzko bizilagunen eta agente sozialen ikuspegia deskribatzen du. Bi esku-hartze horiek hauek dira: arrain-lonja berria eta La Herrera Iparralde/Mendebaldeko (I/M) berrantolamendua. Testuinguru sozio-politikoaren eta parte hartu duten pertsonen osasunari buruzko ikusmoldearen esparruan, osasunean eragina duten elkarrekin erlazioetatutako lau arlo identifikatu dira: hiri-kalitatea, konektagarritasuna, kohesio soziala eta enplegua. Orokorrean, lonja berriaren eragina onuragarria izango dela uste da; La Herrerako berrantolamendua, aldiz, desilusia sortzen du eta epe laburrean gubxi hobetuko dela uste da.

**Informazio gehiago nahi izanez gero:** <http://bit.ly/1BgrRQN>

**DESIGUALDADES DE GÉNERO Y CIENCIA:  
ANÁLISIS BIBLIOMÉTRICO**

La revista **Nature** presentó este trabajo donde se confirma la existencia de desigualdades de género en la producción mundial de investigación, a pesar de las buenas intenciones e iniciativas puestas en marcha. No solo se aprecia la inequidad en la contratación, los ingresos, la satisfacción y las patentes sino también en el número relativamente inferior de mujeres que llegan a catedráticas. Además, los hombres publican más trabajos en promedio que las mujeres, principalmente en áreas en las que la investigación es económicamente más costosa.

**Más información:** <http://bit.ly/18mvXdg>

**EVALUACIÓN DEL IMPACTO EN SALUD (EIS) DE LA  
REGENERACIÓN DE LA BAHÍA DE PASAIA (GIPUZKOA):  
RESULTADOS DEL ESTUDIO CUALITATIVO**

Este artículo describe la percepción de los/as vecinos/as y agentes sociales sobre dos intervenciones realizadas en la bahía de Pasaia: la nueva lonja del pescado y la reordenación de La Herrera Norte/Oeste (N/O), y sus efectos en la calidad de vida y la salud. En el marco del contexto socio-político y las concepciones sobre la salud de las personas participantes, se identificaron cuatro áreas interrelacionadas de impacto en salud: calidad urbana, conectividad, cohesión social y empleo. En general, el efecto de la nueva lonja se aprecia como positivo, frente al desencanto y las escasas perspectivas de mejora a corto plazo de la reordenación de La Herrera N/O.

**Más información:** <http://bit.ly/1BgrRQN>

**ESTEKAK / ENLACES**

Osasun Saila.Osagin  
Departamento de Salud. Osagin

Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad.  
Equidad en Salud y Desigualdades Sociales en Salud.

Organización Mundial de la Salud (SeTP, Equidad en salud)

Comisión de los determinantes sociales de la salud de la OMS

CREIS (Centro de Recursos para La Evaluación de Impacto en Salud)

Public Health Observatories (APHO)

SEE. Sociedad Española de Epidemiología

SESPAS Sociedad Española de Salud Pública y Administración

EUPHA The European Public Health Association Sanitaria

SIIS Careaga Fundazioa  
SIIS (Fundación Eguia - Careaga )

Emakunde. Emakumearen Euskal Erakundea  
Emakunde, Instituto Vasco de la Mujer

UIPES/UIHPE, Unión Internacional de promoción de la Salud y  
Educación para la Salud

Organización Panamericana de la Salud/OPS/OMS/Equidad

Observatorio de desigualdades sociales en salud en España

Asociación Madrileña de Salud Pública

**AGENDA / AGENDA**

14th WORLD CONGRESS ON PUBLIC HEALTH

2015eko otsailak 11-15.

Kolkata, India

11-15 de febrero de 2015.

Kolkata, India

OEEREN 25. OSASUN BILTZARRA:

OSASUNA\_KIROLA.EUS

2015eko apirilak 17-18. Vitoria-Gasteiz

17-18 de abril de 2015. Vitoria-Gasteiz

OSASUNAREN PROMOZIOZIRAKO KONGRESUA:

INGURUNE ETA POLITIKA PUBLIKO

OSASUNGARRIAGOAK ERABERRITZEN

CONGRESO DE PROMOCIÓN DE LA SALUD:

INNOVANDO PARA UNOS ENTORNOS Y

POLÍTICAS MÁS SALUDABLES

2015eko maiatzak 14-15. Bilbao

14-15 de mayo de 2015. Bilbao

EUROPEAN CONGRESS OF

EPIDEMIOLOGY-HEALTHY LIVING

2015eko ekainak 25-27.

Maastricht. HOLANDA

25-27 de junio de 2015.

Maastricht. HOLANDA

II CONGRESO IBEROAMERICANO DE

EPIDEMIOLOGIA Y SALUD PÚBLICA

XXXIII Reunión Científica de la SEE

XVI Congresos SESPAS -

X Congreso APE

2015eko irailak 2-4.

Santiago de Compostela.

2-4 de septiembre de 2015.

Santiago de Compostela.

8th EUROPEAN PUBLIC HEALTH

CONFERENCE: HEALTH IN EUROPE –

FROM GLOBAL TO LOCAL POLICIES,

METHODS AND PRACTICES

2015eko urriak 14-17. Milan

14-17 de octubre de 2015. Milan

OHARRA: Buletin hau dibulgaziozko argitalpena da. Beraz, Osasun Sailak ez du nahitaz bere egin behar honen bidez zabalduetako artikuluetan adierazten diren ondorioak.

NOTA: Este boletín tiene carácter divulgativo, por lo que el Departamento de Salud no asume necesariamente las conclusiones expresadas en los trabajos difundidos en el mismo.